



## Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

# Minbizia, mina bizitzan, min bizia

**rabazi asmorik gabeko elkartea da 2008an sortu genuen Harremanak Hezkuntza Elkartea. Elkarteko estatutueta lehen eta behin jendarte parekideago baten alde egiteko asmoarekin sortutako elkartea izango dela ziurtatzen da.**

Estatutuak egiteko garaian Libe Yurrebaso aitzindari izan zen. Estatutuak egin aurretik argi geneukan elkarteko izenak harremanen ingurukoa izan behar zuela. Oraindik ere gogoan dut logotipoa aukeratzeko garaian Azpeitian Libek ekarritako proposamen ezberdinak aztertzen nola ibili ginen. Olatz Berastegik ere parte hartu zuen prozesu hartan. Ilusioz beterik ginen guztiok, bide berri bati ekiteko irrikatan.....

Libe Yurrebaso 2010eko maiatzaren 5ean hil zen 38 urte zituela, minbiziak jota. Gaixotasunaren ibilbidean bidela-gun izaten saiatu nintzen. Hainbeste buelta eman genizkion buruari, minbizia nondik dator, zergatik, Hammer, bestea eta hura... Galdera mordoa, bizitzako bidean non izan dut min bizia?

Alde batetik, Osakidetzako eskaintza, medikuntza ofiziala. Beste alde batetik, homeopatia, pendulua eta energiak, osteopatia bioenergetikoa... Bide itxaropentsuak, eta, garrantzitsuena, Liberen leialtasuna. Leialtasuna, berak sinisten zuenaren gaineko leialtasuna; berak bere bidea aukeratua zuen eta hala jarraitu zuen bere gaixotasunean.

Aingeru txiki baten moduan joan zen, isilik, goxo eta berak aukeratutako jendea inguruan zuela. Hil aurretik, zera esan zidan: «Anita, guk biok oraindik egitasmo mordoa egin behar ditugu elkarrekin!».

Eta halaxe agindu nion, eta hemen gabiltza Olatz eta biok egunetik egunera sortzen, bururatzen zaizkigun egitasmoak aurrera eramaten. Eta badakit bera gure ondoan dagoela indarra eta ilusioa pizten...

Hileta egunean bere lagunek honako bertso hau idatzi zioten:

*Norena zara zu orain Libe?  
Zure, gure, bere, nire.  
Alaba, arreba, ahizpa, izeba,  
maitale, adiskide.*

*Horrelako ekaitz beltzak  
indartzen ditu ametsak.  
Itsas lami bat lapurtu digu  
Igeldoko itsasertzak.  
Norena zara orain Libe...?  
Nahiz eta denbora joan,  
nola ez izan zu gogoan?  
Irribarre bat eginen dugu  
zutaz oroitzeraoan*

Eta Libez ari naizela, Mirari ere ekarri nahiko nuke gurera, Manex gure lankidearen bikotekidea. Aste honetan bertan joan zaigu tximeleta bihurtuz 39 urterekin, min biziaz, mina bizitzan... Mirari ere goxo-goxo joan omen da, aingeru baten moduan.

Manex, Asier... mutil gazteak alargun. Mirarik eta Libek antzekotasun asko zituzten, biak jendarte parekide baten alde borrokatzen ziren, sinisten zuten medikuntzaren bide ezberdinetan, alaiak ziren, lagunak lagunak...

Ostegunean nire lagun Txusa Balbasekin hitz egiten, honakoa esaten genion elkarri: zerbait eskapatzen ari zaigu minbiziaren inguruan. Industria farma-

zeutikoaren borroka, ikerketa falta, emozioak eta korapiloak, aurreko belau-naldien pisua, elikadura, maitasuna...

Mirariri hiletaren egunean bere lagunek bertso hau abestu zioten:

*Txikitatik elkarrekin  
ekin genionan bideari  
Eta bizi bide hortan  
oroitzapenak ugari  
Sokan, goman, sabel-dantzan  
ikusten haugu dantzari  
Edo txabolan sutondoan,  
eraginez mingainari  
Doinu berezia eman  
dion gure bizitzari  
Loretzo bat erne zaion  
orain gure zuhaitzari  
Patxo potol-potolo bat  
bihotz-bihotzez Mirari*

**Nik badakit biak ondo daudela, eta beraien energiak gure eguneroko lanean lagunduko digula. Guk, bizirik gaudenok, bizitzan aurrera joan behar dugu, gelditzen zaizkigun ikasgaiak ikasiz.** Bidaia on, lagunok. •



Loretzo bat erne zaio orain gure zuhaitzari.